

## Galdera

Neska baten ikuspuntutik zein da forma zuzena, *neba*, *anaia* edo *biak*? Eta mutil baten ikuspuntutik?

## Erantzuna

Biak dira zuzenak. Mendebaldeko aldaeretan *neba* bereizten da, gainerako euskalkietan *anaia* erabiltzen da bietan. Estandarrari begira, biak dira egokiak eta biak erabil daitezke, gure iritzian:

**Anaia:** 1. Haurride gizonezkoa. 2. Mendebaldean, gizonaren haurride gizonezkoa bakarrik. Ik. *neba*.  
*Kainek bere anaia Abel hil zuen.*

**Neba:** Emakumearen haurride gizonezkoa, Mendebaldean, batez ere. Ik. *anaia*.  
*Agudo joan zen Arantza bere neba Josebarengana.*

- Mendebaldeko hitza, batez ere, bizkaierazko tradizioan aurkitzen da. Lazarragarengandik dokumentatua.

**Arreba:** Gizonaren haurride emakumezkoa. Ik. *ahizpa*.  
*Olatz eta Itziar Xabierren arrebak dira.*

**Ahizpa:** Emakumearen haurride emakumezkoa. Ik. *arreba*.  
*Maria eta haren ahizpa Maddalen ikusi ditut.*

**Anai-arrebak** edo **neba-arrebak** edo **haurrideak** edo **senideak**: Norbaitentzat, bere gurasoen edo gurasoetako baten beste seme-alabetako bakoitza.

*Zazpi senideko familia batean harotza zen gure aita.*  
*Zortzi haurrideetako lehena naiz.*

1/ Hitz horien esteketan klik eginez gero, [Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua](#) irekiko zaizu (definizioak).

Esteka honetan, berriz, [Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa](#), eta [neba](#) hitzaren jatorriari buruz artikulua.

## 2/ Elhuyar Hiztegia:

**Anaia:** 1. [hermano](#) 2. (B) [beste anaia batena] [hermano](#)

**Neba:** (B) [hermano](#) [*respecto a la hermana*]

**Arreba:** [gizonezkoarena] [hermana](#)

**Ahizpa:** [beste ahizpa batena] [hermana](#)

- (B) markak adierazten du Elhuyar Hiztegiak bizkaierazko hitza jotzen duela *neba*.

